

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA



LEGAZPIKO  
UDALA

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

2011/10/26

26/10/2011

**Organoa edo batzordea:** Osoko bilkura.  
**Bilera-mota:** ohikoa.  
**Eguna:** 2011/10/26.  
**Ordua:** Hasiera: 19:30.  
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Organo o comisión:** Pleno.  
**Tipo de convocatoria:** ordinario  
**Día:** 26/10/2011.  
**Hora:** Comienzo, 19:30.  
**Lugar:** Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

**Bertaratuak:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.  
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.  
Amaia Solanas Arzituñño, Bildu.  
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.  
Aitor Uribeetxeberria Bidedain, Bildu.  
Igor Urrate Ugarte, Bildu.  
Raquel Puente Iruña, Bildu.  
Javier Iraeta, EAJ.  
Ane Urkiola Alustiza, EAJ  
Aitor Madina Murua, EAJ.  
Oscar Valbuena Pascual, PSE.  
José Morcillo Guerrero, PSE-EE.  
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.  
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.  
Fernando Arakama, Kontuhartzailea.

**Asistentes:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.  
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.  
Amaia Solanas Arzituñño, Bildu.  
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.  
Aitor Uribeetxeberria Bidedain, Bildu.  
Igor Urrate Ugarte, Bildu.  
Raquel Puente Iruña, Bildu.  
Javier Iraeta, PNV.  
Ane Urkiola Alustiza, PNV  
Aitor Madina Murua, PNV.  
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.  
José Morcillo Guerrero, PSE-EE.  
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.  
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.  
Fernando Arakama, Interventor.

**Aztergaiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2011/09/28ko eta 2011/09/30eko bilkurei dagozkien aktak onartzea.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

2. Bidezkoa bada, Legazpiko eguneko zentruaren kudeaketa eta erabilerari dagokion kontratu administratiboa aldatzea.

**HIRGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:**

3. Bidezkoa bada, 2012. urterako Agitax elkarteak proposatutako tarifak onartzea.

**OGASUNA:**

4. Bidezkoa bada, 2012. urterako Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena onartzea.  
5. Bidezkoa bada, 2010. urteko kontu orokorra eta ekitaldiko ondarearen administrazioa onartzea.

**Orden del día:**

1. Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones del 28/09/2011 y 30/09/2011.

**BIENESTAR SOCIAL:**

2. Modificación, si procede, del contrato administrativo relativo al uso y gestión del centro de día de Legazpi.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

3. Aprobación, si procede, de las tarifas propuestas por Agitax para el año 2012.

**HACIENDA:**

4. Aprobación, si procede, de la modificación de Ordenanzas Fiscales para 2012.  
5. Aprobación si procede de la Cuenta General del Presupuesto y Administración del Patrimonio del ejercicio 2010.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

**ALKATETZA:**

6. EAJak aurkeztutako mozioa.
7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
8. Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2011/09/28ko eta 2011/09/30eko bilkurei dagozkien aktak onartzea.

Aktak aho batez onartu dira.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

2. Bidezkoa bada, Legazpiko eguneko zentruaren kudeaketa eta erabilerari dagozkien kontratu administratiboa aldatzea.

Lourdes Ugartek hartu du hitza. Joan den 2011ko martxoaren 9an aurkeztu zuen idatziaren bidez, GSR enpresak Legazpiko Eguneko Zentroa erabiltzeko eta kudeatzeko kontratuaren prezioa aldatzea eskatu zuen eta horretarako arrazoi hauxe dela adierazi zuen: Gipuzkoako Adineko Egoitzetarako Akordio kolektibo berria sinatu ondoren emakidaren oreka finantzarioa berreskuratzea.

14/10/2011ko Gizarte Zerbitzuetako batzordean, aipatutako gaia aztertu ondoren, osoko bilkuran honako irizpena proposatzen zaio:

1. GSR enpresarekin sinatutako kontratuaren aldaketa onartzea eta 2009 eta 2010 urteei dagozkien erreklamaturako 8.077,11 € ordaintzea.

2. 2011n hileko tarifak aldatzea eta modu honetan uztea:

- o Lanegunetako prezioa: 41,71 €
- o Jaiegunetakoa: 49,45 €

Hau negoziazio bidez adostu zen.

**ALCALDIA:**

6. Moción presentada por el.PNV.
7. Dar cuenta de los decretos dictados.
8. Ruegos y preguntas.

**Temas tratados y debatidos:**

1. Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones del 28/09/2011 y 30/09/2011.

Las actas son aprobadas por unanimidad.

**BIENESTAR SOCIAL:**

2. Modificación, si procede, del contrato administrativo relativo al uso y gestión del centro de día de Legazpi.

Toma la palabra Lourdes Ugarte. Mediante escrito presentado el 9 de marzo de 2011 la empresa GSR solicitó que se procediera a la modificación del precio del contrato de uso y gestión del Centro de Día de Legazpi, a fin de restituir el equilibrio financiero de la concesión que como consecuencia de la firma del nuevo Convenio Colectivo de Residencias de Tercera Edad de Gipuzkoa había resultado alterado.

En Comisión de Servicios Sociales celebrada el 14-10-2011 una vez tratado el asunto se le propuso al Pleno el siguiente Dictamen:

1. Aprobar la modificación del contrato suscrito con la empresa GSR procediendo al ingreso de 8.077,11€ reclamados referentes a los años 2009 y 2010.

2. Modificar las tarifa mensuales de 2011 quedando de la siguiente manera:

- o Laborables: 41,71€
- o Festivos : 49,45€

A esto se llevo mediante una negociación.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



LEGAZPIKO  
UDALA

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

3. Alkateari aldaketa hau egiteko baimena ematea.

Javier Iraetak hartu du hitza. Ezin izan zuen batzorde horretan parte hartu deialdia ez zuelako jaso. Ados dago proposamenarekin eta gainera Aldundiak diru bat eman du horretarako.

Lourdes Ugartek hartu du hitza. Diru bat jasota zegoen horretarako. Deialdiari dagokionez, ez daki zergatik ez zaion iritsi.

Javier Iraetak hartu du hitza. Dirudienez bere helbide elektronikoa gaizki zegoen baina zuzendu dute.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta aldeko botoa emango dutela esan du baina bete beharreko gaia dela ulertzen du. Partida horietako diruarekin hitzarmenera sartutako langileei zegozkien atzerapenak ordaindu behar ziren. Aldundiko gizartekintzako departamentuak ordainketa horiek joan den martxoan egin zituen eta Udalak maiatzean eman zion sarrera dokumentuari. Beraz, bete beharrekoa da, horrela egin ezean diru horiek Aldundiari itzuli beharrean aurkituko baikara.

Alkateak hartu du hitza. Batzordean irizpenaren alde bozkatu zuten eta beraien botoa aldekoa izango da diru hori hemendik eskatu zelako eta langileentzat delako.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

3. Bidezkoa bada, 2012. urterako Agitax elkarteak proposatutako tarifak onartzea.

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko urriaren 18an egin zen Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak Osoko bilkurari honako irizpena proposatu nahi diola adierazi du:

3. Facultar al alcalde para la firma de tal modificación.

Toma la palabra Javier Iraeta y comenta que no pudo ir a esa comisión porque no recibió la convocatoria. Está de acuerdo con la propuesta y además la Diputación aportará una cantidad de dinero para ello.

Lourdes Ugarte toma la palabra y dice que ese dinero ya se había recibido. En cuanto a la convocatoria no sabe porque no le llegó.

Javier Iraeta contesta que parece ser que la dirección electrónica no estaba bien pero ya se ha subsanado.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Votarán a favor pero entiende que se trata de un tema de obligado cumplimiento. Se trataba de unas partidas finalistas que comprometían a pagar los atrasos de los trabajadores que se adheriesen al convenio. El departamento de política social de la Diputación hizo los abonos en marzo y el Ayuntamiento dio entrada a este documento en mayo. Por tanto, es de obligado cumplimiento porque si no tendríamos que devolver esas ayudas a la Diputación.

Toma la palabra el Alcalde y comenta que ellos votaron a favor del dictamen y su voto será favorable porque ese dinero se pidió de aquí y es para los trabajadores.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

3. Aprobación, si procede, de las tarifas propuestas por Agitax para el año 2012.

Toma la palabra el Alcalde. La Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios celebrada el 18 de octubre de 2011 le propone al Pleno el siguiente Dictamen:



Taxien Gipuzkoko elkarteak (AGITAX) Legazpiko udalerrian hiri barruko tarifak berrikusteko eskaria aurkeztu duen idatzia ikusirik, 2012. urterako Agitax elkarteak proposatu dituen tarifak onartzea.

Javier Iraetak hartu du hitza. Proiektu bat bazegoen egokitutako taxi bat lortzeko. Jakin nahi du gaia nola gelditu zen. Legazpiko taxistek ez zuten interesik baina mankomunitatean gaia ere aztertu zen.

Alkateak hartu du hitza. Orain bi hilabete taxi plaza bat libre geratu da Zumarragan eta egokitutako taxi bat jarriko da. Ez daki baimena emanda dagoen edo tramitatzen ari diren.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

#### OGASUNA:

**4. Bidezkoa bada, 2012. urterako Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Gaia aztertzen ari dira eta mahai gainean utziko da hurrengo udaibatzen edo aparteko udalbatza batean aztertzeko.

**5. Bidezkoa bada, 2010. urteko kontu orokorra eta ekitaldiko ondarearen administrazioa onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua bat datoz Toki Haziendak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 193. artikuluekin eta horiei jarraiki, alkate lehendakariak taxututako Kontu Orokorra Kontuetarako Batzorde Berezian aztertu beharko da hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen.

A la vista del escrito presentado por la Asociación Gipuzkoana del Taxi (AGITAX) de revisar las tarifas urbanas en el municipio del Legazpi, se propone aprobar las tarifas presentadas por Agitax para el año 2012.

Toma la palabra Javier Iraeta y comenta que había un proyecto para conseguir un taxi adaptado. Quiere saber cómo está ese tema. Los taxistas de Legazpi no tenían interés pero el tema también se trató en la mancomunidad.

Toma la palabra el Alcalde. Hace dos meses quedó una plaza libre en Zumarraga y se cubrirá con un taxi adaptado. No sabe si se ha dado la licencia o se está tramitando.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

#### HACIENDA:

**4. Aprobación, si procede, de la modificación de Ordenanzas Fiscales para 2012.**

Toma la palabra el alcalde y comenta que se está estudiando el tema por lo que se dejará sobre la mesa para tratarlo en el siguiente pleno o en un pleno extraordinario.

**5. Aprobación si procede de la Cuenta General del Presupuesto y Administración del Patrimonio del ejercicio 2010.**

Toma la palabra el Alcalde. Disponen los arts. 62 y 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa en concordancia con el art. 193 de la Ley 39/88, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales, que la Cuenta General formada por el Alcalde-Presidente será sometida a la Comisión Especial de Cuentas antes del 15 de mayo del ejercicio siguiente.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

2011/10/26



**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

26/10/2011

Aipatu kontua jendaurrean jarriko da 15 egun naturalez Batzorde Bereziaren txostenarekin batera eta interesatuek epe horretan aukera izango dute erreklamazioak, eragozpenak eta iradokizunak aurkezteko. Ondoren, Batzorde Bereziak horiek guztiak aztertuko ditu eta beharrezko diren egiaztapenak egin eta gero txosten berria emango da.

Txosten hori, interesatuek aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, egon badira, udalbatzari igorri beharko zaio, eta marboaren 25eko 9/91 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioenari jarraituz, uztailaren 31 baino lehen onartu beharko da.

Udalak Herri-kontuen Euskal Epaitegian aurkeztuko du Kontu Orokorra.

Kontu-hartzaitzak prestatu eta idatzi du 2010 ekitaldiari dagozkion aurrekontuen Kontu Orokorra eta Alkate-lehendakariak horren kontua eman du.

Kontuetarako Batzorde Bereziak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

2010eko ekitaldiaren Aurrekontu Kontu Orokorra eta Ondarearen Administrazioa onartzea.

Irizpena erabakitzeko botoelara jo ondoren, aldeko 10 botoekin eta 3 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak eta Hamaikabateko zinegotzia) onartu da.

**ALKATETZA:**

**6. EAJ alderdiak aurkeztutako mozioa.**

Javier Iraeta zinegotziak hartu du hitza eta akta honi erantsi zaion mozioa irakurri du.

Oscar Valbuena zinegotziak hartu du hitza. Aldeko botoa emango dutela adierazi du, azpiegitura hori Urola Garaia bailararako eta Legazpirako oso inportantea dela uste duelako.

Dicha cuenta con el Informe de la Comisión Especial, será expuesta al público por plazo de 15 días naturales, durante los cuales los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos y observaciones. Examinados estos por la Comisión Especial y practicadas las comprobaciones necesarias, se emitirá nuevo Informe.

Dicho Informe acompañado en su caso de las reclamaciones y reparos formulados por los interesados, se someterá al Pleno de la Corporación que de acuerdo con el art. 63.4 de la Norma Foral 9/91, de 25 de marzo, deberá ser aprobada antes del 31 de julio.

El Ayuntamiento rendirá la Cuenta General al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Preparada y redactada por la Intervención ha sido rendida por Alcaldía-Presidencia la Cuenta General de Presupuestos correspondiente al Ejercicio de 2010.

La Comisión Especial de Cuentas le propone al Pleno el siguiente Dictamen:

Aprobar la rendición de la Cuenta General del Presupuesto y Administración del Patrimonio del ejercicio de 2010.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los concejales de PSE-EE y la concejala de Hamaikabat).

**ALCALDIA:**

**6. Moción presentada por el PNV.**

Toma la palabra Javier Iraeta para dar lectura a la moción que se adjunta al presente acta.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Votarán a favor de la moción porque cree que es una infraestructura de gran importancia para Urola Garaia y también para Legazpi.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA



LEGAZPIKO  
UDALA

2011/10/26

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

Legazpirako ona da, gaur egungo datuak aintzat hartzen baditugu. abantail lehiakorra eskainiko zaiolako. Horrela, Bizkaiarekin 50 milioi eurotan baloratzen diren lehengaiak elkar trukutzen ditugu; gutxi gorabehera hiri arteko 20 zerbitzu ditugu eta 4 distantzia luzekoak. Bestalde, azpiegitura hori aukera paregabea izan daiteke Legazpin edo eskualdean enpresa berriak jartzeko eta kapital berria inbertitzeko; horrezaz gain, garraioaren kostuak murriztu egin ahal izango dira azpiegitura hori modernoak izango delako.

Horregatik eta adostutako azpiegitura delako, ezin dela bertan behera utzi uste dute. Orain dela urte batzuk lortutako adostasunaren emaitza da eta, beraz, ez litzateke desadostasunik egon behar Legazpiko indar politiko desberdinen artean. Joan den 2000. urtean Euskal Herritarrok mozioa aurkeztu zuen Zumarragan eta onartu egin zen; mozio hartan dagoeneko eraikita zeuden bide-tarteak ez geldiaraztea eskatu zen eta azpiegitura hori autobia izatea planteatu zen. Horrezaz gain, mozio hartan honakoa jaso zen: "ukaezina da Beasain-Durango autobia garrantzia bai Gipuzkoarako eta bai Euskal Herriko; Gipuzkoari dagokionez proiektua eskualdearen eta probintziaren arteko komunikaziorako errepide garrantzitsuena eta nagusia izan behar du. Modu berean, Euskal Herriari dagokionez, Iruñea, Altsasu, Beasain, Durango eta Bilbo herriek osatzen duten ardatz nagusiaren zati da eta ardatz hori erabat garrantzitsua da lurraldea egituratzeko eta bide nagusi hori izan daiteke Euskal Herriaren 1 zenbakidun errepide nazionala". Horrela irakur zitekeen Euskal Herritarrok taldeak aurkeztu zuen mozioan eta Zumarragako korporazioak aho batez onartu zuen.

Alkateak hartu du hitza. Udal gobernuak aldeko botoa emango du baina datu hauek eman nahi ditu: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko zorra 1.500 milioi eurokoa da, 900 milioi Bidegikoa eta

Es bueno para Legazpi porque ofrecerá una ventaja competitiva teniendo en cuenta los datos que existen actualmente. Así, intercambiamos unos 50 millones de euros solamente en materias primas con Bizkaia; tenemos aproximadamente unos 20 servicios interurbanos y 4 de larga distancia. Por otra parte, puede aportar una oportunidad para que haya empresas o capital que pueda invertir en Legazpi o en la comarca además de la reducción de costes en el transporte por el hecho de tener una infraestructura moderna.

Por estos motivos y porque es un infraestructura de consenso, creen que no debe pararse. Es un consenso además de varios años atrás por lo que no debiera existir desacuerdo político entre las fuerzas políticas de Legazpi. En Zumarraga se aprobó una moción, presentada por Euskal Herritarrok en el año 2000 en la que se instaba a la Diputación a que diese continuidad a la infraestructura dándole carácter de autovía y que no la parase en aquellos tramos que por aquel entonces estaban ya construidos. Además recogía que "resulta innegable la importancia capital que tiene la autovía Beasain Durango tanto para Gipuzkoa como para Euskal Herria. Desde el punto de vista de Gipuzkoa el proyecto debe ser la principal carretera de comunicación entre las comarca de la provincia. Así mismo podemos afirmar que a nivel de Euskal Herria forma parte del eje Iruñea, Altsasu, Beasain, Durango y Bilbao, el cual resulta de vital importancia en cuanto a la vertebración del territorio y podríamos denominarla la N 1 de Euskal Herria". Así literalmente decía la moción presentada por Euskal Herritarrok y fue aprobada por toda la Corporación de Zumarraga.

Toma la palabra el alcalde y manifiesta que el equipo de gobierno votará a favor de la moción pero quiere asimismo ofrecer una serie de datos: por un lado la deuda de la

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

600 milioi Foru Aldundiarena. 2011an bide eta azpiegitura eta mugikortasunaren aurrekontua 163 milioikoa izan zen eta 2012rako 60 milioikoa izango da. Hemen ikusten da gaurko egoera zein den.

Errepideen kontserbazioan 55 milioitik 35ra pasatzen da eta 900 milioi euroko kreditua ordaintzeko Bidegik aurreikusitako sarrerak gutxiago izango dira.

Bere garaian EAJ puztu egin zituen finantziario lortzeko zituen trafiko erabileren txostenak. Honek suposatzen du epe motzean peaje tarifak igo egin beharko direla. Aurtengo Bidegik aurreikusitako sarrerak 2011an 7 milioi euro gutxiago izango dira eta hurrengo urterako aurreikuspenak 10 milioi euro gutxiago. Honen kargu abalista bezala GFA egingo da.

Bestetik, Urretxu-Deskarga-Antzuola Bidegik finantziatzen du baina falta den Bergara-Antzuola tartea GFAak ordaindu behar du. Horren kostua 71 milioi eurokoa da eta dakitenez, ez da obra gelditzen, obra atzeratu egiten da. 2015 urtean bukatu beharrean, 2016-2017 urterako dago aurreikusita.

Badakite bailararako ez dela egokiena, baina ikusi behar da ze aurrekontu dagoen, ze diru dagoen eta beraien ustez orain arte egindakoa abuso bat izan da eta zenbakiak disparatu egin dira. Eta gaur egungo egoera ez da onena. Orduan, uste dute egungo GFAari ez zaio kulp dena bota behar obra geratu delako, lehenago bai PNVEk eta bai PSOEK, azken 15 urtetan, ez dutelako lehenasuntzat eduki Beasain-Durango tartea. Beste errepide batzuei eman diete lehenasuna. Errazena da, orain atzeratzen denez, egungo GFAari errua botatzea. Beraiek ez dute horrela ikusten. Hala ere, alde bozkatuko dute, bailararako garrantzitsua eta ezinbestekoa delako.

Diputación foral de Gipuzkoa es de 1.500 millones, 900 de Bidegi y 600 de la Diputación. El presupuesto de 2011 de vías, infraestructuras y movilidad es de 163 millones y en el 2012 será de 60 millones. Ahí se ve cual es la situación actual.

En conservación de carreteras se pasará de 55 millones a 35 y 900 millones son para pagar el crédito. Bidegi prevé menos recaudación.

En su día el PNV infló los informes de uso de tráfico para lograr financiación. Eso supone que a corto plazo habrá que subir las tarifas de peaje. Bidegi ha previsto unos 7 millones de euros menos de ingresos para 2011 y la previsión para el 2012 es de 10 millones menos. El avalista será la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por otro lado, Bidegi financia la obra Urretxu-Deskarga-Antzuola pero falta el tramo de Bergara a Antzuola que pagará la Diputación. El coste de ese tramo es de 71 millones y, como saben, la obra no se ha parado, sino que se ha retrasado. En vez de acabar en el 2015 se prevé acabar para el 2016-2017.

Ya saben que no es lo mejor para el valle pero hay que ver qué presupuesto hay, qué dinero hay y creen que ha habido hasta ahora un abuso y se han disparado los números. Y la situación actual no es la mejor. Así pues, creen que no se puede echar la culpa a la actual Diputación por paralizar la obra porque en los 15 años anteriores ni PNV ni PSOE dio prioridad al eje Beasain-Durango y se dio prioridad a otras carreteras. Como ahora se atrasa lo más fácil es culpar a la Diputación. Ellos no lo ven así. Aun así, votarán a favor porque es importante e imprescindible para la comarca.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



LEGAZPIKO  
UDALA

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

Ane Urkiolak hartu du hitza. Alkateak aipatutakoa argitu beharra dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dauka 1.500 milioiko zorra zeren Aldundiaren aurrekontua eta Bidegiren aurrekontuak ezberdinak dira. Eta 900 milioi horiek Bidegiko aurrekontuari dagozkie. Bidegiko 900 milioi horiek finantzatzeko plan ekonomiko finantziarioa zeukaten. Diru iturri batzuk zeuden diru horri aurre egiteko eta gaurko Foru Aldundiak ez dator bat plan ekonomiko finantziario horrekin eta plan hori kentzen baldin bada, Bidegin eta ez GFAan 900 milioiko zulo bat dago. Oraingo Aldundiaren ardura da plan ekonomiko finantziario berri bat aurkeztea beraien alternatibarekin. Aurreko planaren oinarriak peajeak dira, azken berrien arabera Foru Aldundiak peajeak han eta hemen aurreikusten ari da. Ardura Aldundiarena da plan ekonomiko finantziario bat kendu duenez, beste bat aurkezteko. Bi zorrak ez dira nahastu behar. Berak entzun zion Diputatu nagusiarri Bidegikoa aurrera joango zela baina GFA ari zegoikiona ikusteko zegoela. Momentu egokian aurkeztu da mozio hau eta mankomunitateko lehendakaritza Bildukoa da, Alkatetza ere eta Aldundia ere bai, beraz, hor daukate erronka eta presioa egiteko aukera tunela, bai Bidegiren zatia eta baita Aldundiari dagokiona, aurrera ateratzeko.

Oscar Valbuena zinegotziak hartu du hitza eta Ane Urkiola zinegotziarekin bat datorrela esan du. Bereizi egin behar da enpresa publiko batek duen zorra eta Diputazioa bezalako erakundeak duena edo, gure kasuan Herrigintzak eduki dezakeen zorra eta udalak izan dezakeena. Plan ekonomiko finantziario bat dago, adostuta dagoena, eta hori aldatzen bada, zorrak nola ordaindu behar diren eta Bidegi nola finantzatu den azaldu beharko da. Edozelan ere, gaur komunikabideetan entzun dugu Aldundiak peajeen gaineko irizpideak aldatu egingo dituela eta horrek esan nahi du Gipuzkoan peajeen tarifak igo egingo direla. Beraz, peajeak igo egin behar badira, ez dauka zentzurik lurraldean inportanteak diren azpiegituretako obrak

Toma la palabra Ane Urkiola. Hay que aclarar lo que ha dicho el alcalde. La Diputación Foral no tiene una deuda de 1.500 millones porque los presupuestos de la Diputación y de Bidegi son distintos. Y esos 900 millones son del presupuesto de Bidegi. Esos 900 millones de Bidegi tenían un plan económico financiero para su financiación. Había unas fuentes de ingresos para cubrir eso y la Diputación Foral actual no está de acuerdo con ese plan financiero y si se quita hay un agujero de 900 millones en Bidegi, no en la Diputación. Ahora la responsabilidad de la Diputación es hacer un plan económico financiero nuevo alternativo. La base del plan anterior son los peajes y parece que la Diputación prevé peajes aquí y allá. La Diputación ha quitado un plan económico financiero y debe presentar otro. No hay que mezclar las dos deudas. Ella oyó al diputado general que lo de Bidegi iría adelante y lo de la Diputación habría que ver. Esta moción se ha presentado en el momento adecuado ya que la presidencia de la mancomunidad es de Bildu, también la alcaldía y también la Diputación; por lo tanto ahí tienen el desafío y la oportunidad de hacer presión para hacer el túnel, tanto el tramo de Bidegi como el de Diputación.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Coincide con lo indicado por Ane Urkiola. Hay que diferenciar la deuda que tiene un empresa pública respecto de la que tiene una entidad municipal como puede ser la Diputación o en nuestro caso Herrigintza respecto de lo que pueda ser la deuda pública municipal. Hay un plan económico financiero que estaba consensuado y si se cambia, habrá que explicar como se van a pagar las deudas y como se va a financiar Bidegi. En cualquier caso, hoy ha habido una noticia según la cual la Diputación va a cambiar el criterio de los peajes lo que supondrá una subida de los peajes en Gipuzkoa. Por tanto, si va a existir una subida de peajes, lo que no tiene sentido





2011/10/26

26/10/2011

geldiaraztea eta horien artean dago Urola Garaiko azpiegitura.

Aldundiak zeharkako zergak igotzeko asmoa aztertzen ari bada, ezin da justifikatu azpiegiturak geldiaraztea. Bestalde, Alkateak atzerapen horretan PSE alderdiak errua izan duela esan du eta gogora ekarri nahi du Aldundiko PSE alderdiko azpiegituren azkeneko diputatua Anton Arbulu izan zela 1994 edo 1995. urtean eta, beraz, atzerapenaren erantzukizun osoa joan den maiatzera arte egon den Foru Gobernuarena izan da eta, berak dakenez, azpiegituretako foru erantzukizuna EAJ alderdiarena izan da.

Alkateak hartu du hitza. Ane Urkiolak komentatu duenari dagokionez, aurten dagoen 7 milioi euroko zorran Aldundia dago abalista bezala eta bera egingo da kargu. Bidegi ez da kargu egingo. Eta hurrengo urteko 10 milioiko zorraz ere Bidegi ez da kargu egingo, azkenean Aldundia egingo da kargu. Aldundiak asmoa badauka peajeen diru-sarrerak igotzeko, igotzen badira, suposatzen du hori tapatzeko izango dela batetik eta gero beste gauza batzuetarako bestetik.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Aldundiak 7 milioiko abala bermatu beharko du, beti ere pendiente geratzen den plan ekonomiko finantziarioa egiten ez duen neurrian; hor dago akatsa. Egin dezala plan ekonomiko finantziarioa eta alternatiba bat aurkeztu dezala zor hori finantziatzeko; zorra edo obrak finantziatzeko.

Javier Iraeta zinegotziak hartu du hitza. Gobernu taldea zoriondu nahi du mozioaren alde egin delako. Urrats inportantea dela uste du. Ane Urkiola zinegotziak esan duen moduan, mankomunitatean ere urrats berdina ematea espero dute y modu horretan presioa egin dezatela obra horiek ez geldiarazteko edo ahalik eta azkarren egin daitezela lortzeko.

es que se paralicen las obras en las infraestructuras que son importantes el territorio y concretamente para Urola Garaia.

Si se está pensando en un aumento de impuestos, indirectos por parte de la Diputación, lo que no se justifica es la paralización de las infraestructuras. Respecto a lo que ha comentado el Alcalde de la implicación del PSE en el retraso, el último Diputado Foral de infraestructuras del PSEE fue Anton Arbulu y fue en el año 94 o 95, por lo tanto la responsabilidad del retraso es del Gobierno Foral que ha habido hasta mayo de este año y que él sepa la responsabilidad foral de infraestructuras ha sido del PNV.

Toma la palabra el Alcalde. En cuanto a lo que ha comentado Ane Urkiola, en la deuda actual de 7 millones la Diputación es avalista y hará frente a ello. Bidegi no se hará cargo de eso. Y de los 10 millones de deuda del año que viene tampoco se hará cargo Bidegi, sino la Diputación. La Diputación prevé subir los peajes y si se suben se supone que es para cubrir esa deuda y para otras cosas.

Toma la palabra Ane Urkiola. La Diputación tendrá que garantizar el aval de 7 millones siempre que no se cumpla el plan económico financiero y ahí está el error. Que haga un plan nuevo y presente una nueva alternativa para financiar esa deuda: para financiar la deuda o la obra.

Toma la palabra Javier Iraeta. Quire felicitar al Equipo de Gobierno por apoyar la moción. Cree que es un paso positivo por su parte. Como decía Ane Urkiola, esperan que a nivel de mancomunidad se de el mismo paso y que se haga presión para que estas obras no se paralicen o se agilicen lo máximo posible.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

Irizpena erabakitzeako botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

Alkateak hartu du hitza. Bigarren mozio bat aurkeztuko dute: emakumeen indarkeriaren aurkako mozioa. Urgentziaz aurkeztu dute, azaroaren 25a delako eguna eta hurrengo udalbatza azaroaren 30ean izango litzatekelako.

Urgentzia botaziora eraman ondoren aho batez onartu da.

Jarraian Lourdes Ugartek akta honi atxikitutako mozioa irakurri du.

Mozioa botaziora eraman ondoren aho batez onartu da.

#### 7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta 378 zenbakidun Dekretuaren gaineko informazioa eskatu du (Labealderi zigor-espeditzea irekitzea).

Alkateak hartu du hitza eta 2007-2010 epealdiko Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ikuskapenari dagokiola argitu du.

#### 8. Eskariak eta galderak.

Javier Iraeta jaunak hartu du hitza. EAJ alderdiak informazioa eskatuz idatzia aurkeztu zuela ekarri du gogora. Bozeramaileen batzordean alkateak bere aldetik informazio hori eskuratzeko arazorik ez dagoela esan zuen baina ez da onartu berriek informazio hori jasotzeko proposatu duten modua edo bidea. Alkateari idatziz erantzun dezala eskatu diote. Beraien ustez eskubidea dute eskatu duten informazioa eskatutako moduan jasotzeko eta alkateari eskaria berriro azter dezala eskatu diote. Gaur egun dauden aurrerapenekin, modu telematikoa udaletxean egunero ematen diren sarreraren berri eman daitekeela uste dute. Informazio hori zinegotzietan posta elektronikoa bidez bidaltzea eskatzen

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

Toma la palabra el alcalde y presenta una segunda moción respecto a la violencia contra las mujeres. Se presenta con urgencia porque el día es el 25 de noviembre y el siguiente pleno será el 30 de noviembre.

Se vota la urgencia que se aprueba por unanimidad.

A continuación Lourdes Ugarte lee la moción que se adhiere a esta acta.

Una vez votada la moción se aprueba por unanimidad.

#### 7. Dar cuenta de los decretos dictados.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Solicita información sobre el Decreto 378 (inicio de expediente sancionador a Labealde).

Toma la palabra el Alcalde. Se trata de la inspección del IAE relativa al periodo 2007-2010.

#### 8. Ruegos y preguntas.

Toma la palabra Javier Iraeta. Se hizo por parte del PNV una solicitud de información por escrito. En la Junta de Portavoces el Alcalde indicó que por su parte no había ningún impedimento en relación al acceso a la información, pero la forma en la que ellos solicitaron la información no fue aceptada. Solicitan que el Alcalde responda por escrito. Creen que tiene derecho a pedir la información en la manera en que la pidieron. Le solicita al Alcalde que vuelva a estudiarlo. Solicitan que de una manera telemática, con los adelantos que existen hoy en día, se les informe de las entradas diarias que se den en el Ayuntamiento. Solicitan que se les

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



LEGAZPIKO  
UDALA

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

dute. Badaki ez dela informazioa ezkututzen baina informazio hori egungo baliabideak erabiliz ematea da helburua.

Bestalde, Urola Telebistako erreportaje baten bidez jakin dute UTB ez zela hemengo udalbatza grabatzera etorri, egun eta ordu berdinean Urretxun zegoen udalbatza grabatzen egon zelako. Ondoren, alkatea elkarrizketatu dute grabatu ez zen udalbatzan zer gertatu zen jakiteko. UTBkoei esan dieten bezalaxe, parte hartzea nahi zuten udalbatza hori oso interesgarria izan zelako eta beraien iritziak ez dira alkateari egindako elkarrizketan islatzen. Haien iritziak jasotzen badira beraienak ere jasotzea eta elkarrizketatuak izatea eskatzen dute.

Azkenik, bihar Aratz-Aizkorri parkeari buruz nekazaritza arloko bilera dagoela ekarri du gogora. Afektatuei egoeraren berri emango zaie: obligazioak,... Horrekin lotuta, aurreko legealdian Brinkolako aterpearen gaineko proiektu bat zegoen. Parkerako sarbidea ez bazen ere, irteera izan zitekeela komentatu zen, bertako baliabideak eskainiz: geltokia, aterpea,... Dagoeneko idatzita dagoen aterpearen proiektua aurrera doan jakin nahi duela esan du.

Alkateak hartu du hitza. EAJak bi eskaera aurkeztu ditu. Bata gela herritarrekin elkartzeko erabiltzeko eskarea da eta horrekin udal gobernuak ez dauka inolako arazorik.

Beste eskaera bat zen dekretuei zegokiena eta orain arte bezala deretuek eskuragarri daude udalbatzaren aurreko ostiraletik. Sistema aldatzen ari da orain baina ez zaie beharrezkoa iruditzen egunero sinatzen diren dekretuak bidali behar izatea. Azkeneko 100 urteetan bezala dekretuak eskuragarri daude astebete lehenago eta ez daki zergatik planteatzen den orain eskaera hau.

remita a los concejales esta información via correo electrónico. Sabe que no se oculta información, se tratará de facilitar esa información por medios actuales.

Por otra parte, han tenido conocimiento a través de un reportaje de UTB de que hubo un pleno al que no asistió UTB porque estaba cubriendo el Pleno de Urretxu. Posteriormente ha habido una entrevista al Alcalde en la que ha manifestado lo ocurrido en aquel pleno. Como le han manifestado a UTB, les hubiera gustado participar porque fue un pleno bastante movido y sus opiniones no se reflejan en la entrevista del Alcalde. Solicitan que si se repiten sus opiniones también se recojan o se les entreviste.

Por último, mañana hay una reunión de agricultura sobre el tema de Aratz- Aizkorri. Se explicará la situación de los afectados: obligaciones... Unido con esto, en la anterior legislatura había un proyecto sobre el albergue de Brinkola. Se hablaba de que aunque no sea la puerta de entrada al Parque, igual se podría ser puerta de salida con las estación, el albergue... desea saber si el proyecto del albergue, que ya estaba redactado, va a seguir adelante.

Toma la palabra el Alcalde. el PNV ha presentado dos solicitudes. Una poder usar la oficina para reunirse con los ciudadanos y para eso el gobierno municipal no tiene ningún problema.

La otra solicitud es respecto a los decretos y esos pueden consultarse a partir del viernes anterior al pleno. Ahora se está cambiando el sistema pero no les parece necesario mandar diariamente todos los decretos que se firman. En los últimos 100 años los decretos se pueden consultar una semana antes y no entiende porque se plantea ahora esta petición.



2011/10/26

26/10/2011

Bestetik, sarrerak eskatzen dituzte, eta horiek danak ematea uste dute ez dela beharrezkoa. Behar duten edozein informazio eskuragarri daukate. Ez dute uste udaletxera sartzen den informazio dana bidali behar zaienik, gainera datu pertsonal asko azaltzen dira eta ez dute ikusten hori dana zinegotziei bidaltzeko inongo arrazoinik dagoenik. Dena daukate eskuragarri, ez zaie ezer gorde eta zerozer konkretua behar izanez gero emango zaie.

Bestetik, UTBek egin zion elkarrizketan, ez daki punturen bat ez zaien gustatu... hain inportantea bada, hurrengo batean UTBek ezin badu etorri agian udalbatza aldatu beharko da. UTBren baliabideak direnak dira eta beste herri batera joan behar izan bazuen haiek hor ezin dira sartu.

Azkenik, aterpearen proiektua ikusi dute, 600.000 euro ingurukoa da eta beraien egingo lukete baina ez dago dirurik. Proiektua ez da baztertu behar eta aurrerago aztertuko da. Baina gauza asko dago egiteko eta dirurik ez.

Aitor Madinak hartu du hitza. Gogora ekarri du jai batzordea kultura batzordearen mende dagoela eta, beraz ez da batzorde moduan ageri udal organigraman. Joan den astean bildu zen eta beste gai batzuen artean, datorren urteko maiatzeko jai egunak onartu ziren, apirilaren 30etik maiatzaren 6ra. Bere galdera da batzorde horrek gaitasunik daukan erabaki horiek hartzeko edo udalbatzak onartu behar dituen. Gainera, erabaki hori herriko beste elkarteetara allegarazi beharko da, bakoitzak bere egutegiak egiterakoan jaiegun horiek aintzat har daitezten

Rakel Puente hartu du hitza. Jai Batzordean festetako egunak zehaztu ziren eta aurrerago egingo da programazioa. Kultura teknikariak udaletxean kontsultatu zuen eta orain arte behintzat jai batzordeak erabaki ditu beti festetako egunak.

Por otro lado solicitan todas las entradas y cree que eso no es necesario. Pueden consultar cualquier información. No creen que les deban mandar toda la información que entra en el ayuntamiento; además, hay muchos datos personales y no ven razón para mandar todo eso a los concejales. Tienen todo a mano, no se les oculta nada y si es algo concreto se les dará sin ningun problema.

Por otro lado, no sabe si es que no les gustó algún punto tratado en la entrevista que le hizo UTB; si es tan importante, la siguiente vez si no puede venir UTB tendremos que cambiar el pleno. Los recursos de UTB son los que son y si tuvieron que ir a otro municipio ellos ahí no se meten.

Finalmente, han visto el proyecto del albergue, de 600.000 euros y ellos lo llevarian a cabo pero no hay dinero. No descartan el proyecto y se estudiará más adelante. Pero hay muchas cosas para hacer y no hay dinero.

Toma la palabra Aitor Madina. En la comisión de fiestas, que es una comisión dependiente de la comisión de cultura y que por lo tanto no consta como tal en el organigrama municipal se decidió que las fiestas se desarrollarían entre el 30 de abril y el 6 de mayo. Quiere saber si esa comisión tiene poder de decisión o si esa decisión hay que trasladarla al Pleno. Además esa decisión habra que trasladarla a otras entidades del pueblo. Para que lo tengan en cuenta a la hora de establecer sus calendarios.

Toma la palabra Rakel Puente. En la comisión de fiestas se decidieron los días de fiesta y más adelante se decidirá la programación de los distintos actos. La técnica de cultura consultó en el ayuntamiento y hasta ahora al menos ha sido la comisión de fiestas la que decide los días de fiesta.



2011/10/26

26/10/2011

Aitor Madinak hartu du hitza. Ez dakiena da orain arte egindakoa zuzena den ala ez. Hori da jakin nahi duena, horrela egin behar den ala ez.

Alkateak hartu du hitza. Berak dakienez, jaietako egun nagusia maiatzaren 3a da eta egun hori aldatzeko udalbatzatik pasatu behar da baina jaiak mantentzen badira 3a barne, orain gertatzen den bezala, ez dago plenotik pasatu beharrik.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Jasotako hainbat idatzitan akatsak agertzen ziren "corta-pegaren" ondorioz; espedienteren batean ere akats tontoak daude baina ondorio larriagorekin, txostenen batek ez dauka jarraibiderik... eskatuko lioke alkateari, Gobernu Buru bezala, ardura eta zuzentasun gehiago eskatzea udal zerbitzuei bere eguneroko eginkizunetan.

Alkateak hartu du hitza. Datu konkreturen bat daukan galdetzen dio.

Javier Iraetak hartu du hitza. Adibidez gaur jasotako zozketarako deialdian, "udal hauteskundeak" aipatzen ziren. Akats tonto bat da baina badaude beste batzuk: deialdiak ez dira iristen... etab.

Alkateak hartu du hitza. Kontutan hartuko da eta akatsak zuzentzen saiatuko dira.

Oscar Valbuenak hartu du hitza. Orain arte egin diren Gobernu batzorde guztien aktak jasotzea eskatu du, orain arte bilera horietan erabaki denaren berri izateko.

Bestalde, aurrekontuak eztabaidatzeko egutegi bat ezar dadila eskatu du, berriro gaurko Ogasun batzordean gertatu dena gerta ez dadin. Izan ere, gaurko batzordean azkenean ezin izan da gaiari buruz eztabaidatu presaka ibili garelako.

Egutegi bat jarri beharra dagoela uste du, kontuan hartuz dagoeneko azaroan gaudela eta

Aitor Madina toma la palabra y dice que no sabe si lo que se ha hecho hasta ahora es lo correcto. Eso quiere saber, si hay que hacer así o no.

Toma la palabra el Alcalde. Que él sepa la fiesta patronal es el 3 de mayo y cambiar ese día se decidiría en el Pleno pero si se mantiene ese día, como ahora, no hay por que pasar por el pleno.

Toma la palabra Ane Urkiola. En algunos escritos recibidos aparecen errores a consecuencia del "corta-pegar"; en algún expediente hay errores tontos pero con graves consecuencias, algún informe no tiene continuidad,... pediría al alcalde como jefe de gobierno que pida mas responsabilidad y corrección a los servicios municipales en sus quehaceres diarios.

Toma la palabra el Alcalde y pregunta si tiene algún dato concreto.

Toma la palabra Javier Iraeta. Por ejemplo en la convocatoria para el sorteo recibida hoy aparece "elecciones municipales". Es un error tonto pero hay otros: no llegan las convocatorias....

Toma la palabra el Alcalde. Se tendrá en cuenta e intentarán corregir los errores.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Solicita las actas de Junta de Gobierno que se hayan celebrado hasta el momento para saber lo que se ha decidido en esas reuniones.

Por otra parte, solicita que se establezca un calendario para la discusión de los presupuestos y que no vuelva a pasar lo que ha pasado hoy en la Comisión de Hacienda que al final por prisas no ha habido tiempo suficiente para discutir sobre el tema.

Entiende que es necesario establecer un calendario teniendo en cuenta que estamos en noviembre y que en 15 días hay que

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

15 egun barru Ordenantza Fiskalak onartu behar direla. Ondoren, aurrekontuak ia bukatuta egon behar dira hilabete eta erdi barru.

Bestalde, hirigintzako aparteko batzorde bat lehenbailehen egitea komeni dela esan du. Batzorde horretan eraikinak garbitzeko kontratuaren gaia aztertu beharko da. Oso egoera ez-ohikoan gaude eta alkateak dekretu bat edo hiru sinatu beharko ditu 18.000 eurotan garbiketaren zerbitzua Eulen enpresari luzatzeko. Horrezaz gain, egungo enpresako langileak ere kezkatuta daude enpresa berrira joan behar dutelako. Oraindik ez dakite zer pasatuko den enpresa berriarekin, UNI2 enpresak kontratua momentuz ez onartzea erabaki duelako.

Alkateak hartu du hitza. Alde batetik, Gobernu batzordea eratu gabe dago eta urte bukaerarako egotea espero du. Hortik aurrera aktak bidaliko dira.

Ordenantza Fiskalei dagokienez, goizean gaia garbi geratu dela ulertzen du. Atzerapenarekin ibili dira; gaur goizean banatu da informazioa eta aztertzeko nahiko denbora dutela uste du. Hamar egunetan batzordea egiteko deia pasatuko da eta aparteko udalbatza egingo da guztion artean adostutako aldaketak onartzeko, edo hori espero da behintzat.

Alkateak hartu du hitza. Azken puntuari dagokionez, uste du gaia barruan geratuko dela, ez du inor asaldatu nahi eta ahalik eta irtenbide egokiena bilatuko zaio. Aurrekoan esan zitzaizen bezala, bihar iritsiko den txosten baten zain gaude eta horren edukia jakin arte ez dute inor asaldatu nahi. Gai korapilatsua da, gauzak ez dira ondo egin enpresaren partetik eta ikusi beharko da zer pasatzen den.

aprobar las Ordenzas Fiscales y los presupuestos tiene que estar casi terminados en mes y medio.

Por otra parte, cree que es necesario que se convoque lo antes posible una comisión extraordinaria de urbanismo para tratar el tema del contrato de limpieza de edificios. Estamos en una situación un tanto extraordinaria, por lo que comentó el Alcalde la semana pasada va a tener que firmar uno o tres decretos por importe de 18.000 euros para prorrogar a Eulen el servicio de limpieza y también hay una cierta inquietud entre los trabajadores de la empresa actual en relación a que deben subrogarse a la nueva empresa. Todavía no se sabe lo que pasará con la nueva empresa porque UNI2 ha rechazado de momento asumir el contrato.

Toma la palabra el Alcalde. Por una parte, la Junta de Gobierno está sin constituir, esperan hacerlo antes de final de año. A partir de entonces se pasarán las actas.

En cuanto a las Ordenanzas Fiscales, entiende que a la mañana ya ha quedado claro. Han ido con retraso, hoy mismo se les ha dado la información y cree que tienen tiempo de sobra. En unos diez días se convocará una comisión y se realizará un pleno extraordinario para aprobar los cambios consensuados entre todos, o eso espera.

Toma la palabra el alcalde y en cuanto al último punto cree que el tema ha quedado dentro; no quiere alarmar a nadie pero se intentará encontrar una solución adecuada. Como ya se les dijo estamos a la espera de un informe que llegará mañana y hasta saber el contenido no quieren alarmar. Es un tema complicado, las cosas no se han hechos bien por parte de la empresa y habrá que ver qué pasa.

UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA

2011/10/26



LEGAZPIKO  
UDALA

ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL

26/10/2011

Alkateak, arratsaldeko 21:30ak direnean, amaitutzat eman da bilkura eta azertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 21:30 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

Akta hau 2011/11/30ean egindako bileran onartu zen:

bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.

baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.

Este acta fue aprobada en la sesión del día 30/11/2011:

en su integridad, sin ninguna objeción.

si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.

Ainhoa Urruela Bordegarai  
Idazkaria

Kepa Urzelai Goitia  
Alkatea